

**Bediako ondarea jasoteko ikerketea egin dau Labayruk**

12. orrialdea

**Itziar Zabala Munduko txapelketara**

Itziar Zabala eskalatzailer dimoztarrak zemendian Gemozac-en (Frantzia) jokatu du munduko txapelketan hartuko dau parte. Horretarako gogor entrenetan dabil, bere kabuz, entrenatzailerik ez dauka eta. Zabala Espainiako txapeladuna da gazte mailan, Gijonen lortu eban titulua aurtengo bagilean. **10. orrialdea**



**Ikastaroetan izena emoteko epea zabalik dago Arratiako herrietan**

13. orrialdea

TOKIKOM

# begitu **10** urte

arratia ubide zeberio

# 170

2012ko urri lehenengoaren 18a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Ordizian Zeanuriko gaztaia irabazle

Ordiziako Idiazabal Gaztai Lehiaketea, Idiazabal gaztai lehiaketarik garrantzitsuena Ipiñaburuko (Zeanuri) Jon Etxebarriak irabazi dau pasa dan udabarrian egindako gaztai bategaz.



Puy Arrieta eta Jon Etxebarria Ipiñaburuko gaztaitegian Ordiziako garaikurragaz.

Ipiñaburuko larreetan bazkatzen diran ardiaren esneagaz egindako gaztai honeek sari asko jaso dabez eta gaztaitegian bertan, Arratiako hainbat dendatan, eta ferietan saltzean dabez gaztaiok.

Azkenengo urteotan, gaztaiok alkarlanean egiten dauz Etxebarriak Puy Arrieta bere andreagaz. Honek be bere aldetik bazituan sariak eta aurten, alkarregaz egindako gaztaiok Azpeitian bigarrena eta Ordizian irabazlea izan dira. Gaztai erdiagaitik Catalana Occidente aseguru etxeak 7.400 euro ordaindu ebazan.

Lehenengo aldia da bizkaitar batek Ordiziako txapelketea irabazten dauela. Izan be, Bizkaian, epaimahaikoak ez bezela, jenteak gurago izaten dau gaztai zuria, Araban eta Gipuzkoan, oster, gaztai ketua. "Ke apur bat emonda, beste ikutu bat" hartzean dauala gaztaiok dino Etxebarriak. **13. orrialdea**

**ARRATIA**

**Hilaren 26an greba orokorra**



Greba deialdia egin dabe sindikatuak eta gizarte eragileak Espainiako gobernuak ezartzen dabilen murrizketen kontra agertzeko. Martiaren 29ko grebarean jarraipena izatea gura dabe deitzaileak; izan be, orain orduan baino "arrazoi gehiago dagoz greba egiteko".

Greba egunean Arratian manifestazioa egingo da Igorren, 18:30ean udaletxeko plazan hasita. **7. orrialdea**

**ARRATIA**

**Jubilau ostean Afrikara itzuli da Egiluz**

Maribel Egiluz, moja igorretarrak 40 urte inguru emon dauz Kongoko Errepublikan Demokratikoan. Jubilautako hurrengo egunean egon zan BEGITU beragaz eta herrialde honen egoeraren lehen eskuko testigantzea jaso dau. Frantziskotarrak, eleiza eta konfesino guztien eta GKEK egiten dabenaren behararen hausnerketea egin dau eta bertan gertatzen diran giza eskubi-deen urraketen barri munduak jakin behar dauala dino. **8. eta 9. orrialdeak**



**IGORRE**

**Mihiluzeren final handia eta gehiago Inbiu Euskera Egunean**

Hilaren 22an izango da, zapatua, urtero ospatzen dan Inbiu Euskera Eguna Igorren. Aurtengo ekitaldi nagusia Mihiluzeren final handia izango da, urtean zehar lehiaketea martxan egon da eta finalera heldu diranak nor baino nor ibiliko dira Lasarte Aretoan egun horretan. Horrezaz gainera hainbat ekintza antolatu ditue egunean zehar, bazkaria, erromeria, trikitaliak... **5. orrialdea**



## KANTU HERRIKOIAK

JOSEPANTONTXU  
KOLORE GORRI

Josepantontxu kolore gorri  
kapitan baten alaba,  
aitek doterik emon ez arren,  
apeilatzen dau senarra.

Astelehenian ezkondu eta  
martitzenian basora,  
egueztenean orbela ebaten,  
eguenian etxera.

Barikuan bedarra ebaten  
zapatu goizian laietara,  
domeka goizian afan guztiegaz  
hamarretako mezara.

Iturria: Paule Mendibil Uriarte (Zeanuri 1922-1984).

1987an, Zeanurin, Mikel Manterola, Iñaki Larrakoetxea eta Ruper Lekuek jasoa.

## Josepantontxu kolore gorri

Jo - se - pan - ton - txu ko - lo - re go - rri  
ka - pi - tan ba - ten a - la - ba, ai - tek  
do - te - rik e - mon ez ha - rren a - pei - la - tzen dau  
se - na - rra. As - te - lehe - ni - an ez - kon - du  
e - ta mar - ti - tze - ni - an ba - so - ra,  
e - guez - te - ne - an or - be - lae - ba - ten,  
e - gu - e - ni - an e - txe - ra.

## TELEFONO INTERESGARRIAK

## Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak  
09:00etatik 22:00etara

## Urri lehenengoaren 17tik 23ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54

## 22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

## Urri lehenengoaren 24tik 30era

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22

## 22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

## Urri bigarrenaren 1etik 7ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11

## 22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

## Urte osoan

## 22:00etatik 09:00etara

Carazo. Karmelo Torre kalea 12. Basauri.

## Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

## Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

## Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

## Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

## Parketxea

94 673 92 79

## Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

## Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

## Trenak

Euskotren 902 543 210

## Bizkaibus\* 902 222 265

## Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduru: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua  
22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduru: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

## Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era  
orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

## Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara  
30 minuturo, azkenengo 22:15ean  
Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30  
minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean  
Galdakaoraino.

## Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era  
30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

## Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:  
06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

## Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era  
orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

## Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,  
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

## Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik  
21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

## Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago  
zerbitzurik.

## Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta  
20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

## Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

## Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15  
eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,  
14:15, 17:15 eta 20:15.

## Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15  
eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40,  
16:40 eta 19:40ean.

## La Union\* 94 427 11 11

## Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan  
dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta  
16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau  
eta Otxandioakoak 18:30ean.

## Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta  
16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta  
Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan  
dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan  
dau Gasteizetik. Otxandioakorik ez dago.

## Babesleak:



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Urtzi Barrenetxea, Cristina Ruiz eta Irati Urien.

Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketa: Maria Rodríguez eta Pablo Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alaia Ozerinjaregi eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.600 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.



## ZEURE BERBEA

### Zeure berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:

begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Zaragi



Gure umetako sasoieta ardaoa garraiatzeko edo orioa gordetzeko erabilten zan zaragia. Abereen narruaz eginiko ontzi berezi horeri zagi be esaten deutsagu. Batuaz, zahagi da. Gaur egun, zaku esangura be badauka eta, zentzu zabalean, persona lodia danari be esaten jako; esaterako, "zagi moduan" egotea zera da: sano handituta eukitea (bernak, besoak...) edo lodi-lodi egotea da. Zaragi berbeagaz lotuta beste hau be badogu Arratian: zaragito/zagito/zaito (saftoa, ahoskatuta), gizon handia edo gorputz ederrekoa esan gura dau.

## ERETXIA



**PATXI GAZTELUMENDI**

EHNEko kidea

### Goizero hartzean dogun lehen ebatzia

**E**batzi politikoa da. Goizean goiz, altxau, itzartu... eta hozkailua zabalduteagaz batera, eskoiko eskuagaz hartzean dogu lehenengo ebatzia: esnea.

Hor ebatzen da gurean, baseritarren etorkizuna. Behi sektorearen biziraupena.

Eta merkeagoa ei dalako, Lidl, edo Eroskin, edo Carrefourren 50 zentimoko ustezko esnea erosi badogu, horrek esan gura dau, bost ardura deuskula inguruko baseritarren egoerak. Gure bazterrotan, hain maite dogun Euskal Herri honetan ez dogula behirik gura. Adardunak San Ferminetarako. Ostantzean, gurago dogula ez dakit nondik, ez dakit zegan ekarritako esnea.

Goizeroko kafeagaz, kolakoa-gaz... ebatzi politiko potoloa hartzean dogu guk guztiok. Eredu gara belaunaldi barriagoen aurrean. Eta ez gara lotsagorrituko, ez horixe.

Euskal Herrian, egunero zenbat basukada hartzean ote diran pentsau dogu inoz? Zenbat kafe goxo hartzean doguz negozio batzarretarako, lagunakaz geratzeko, txukumutxuka ibilteko? Maite zaitut, atseginago esateko?

Esne tantakada bakotxa, ebatzi politikoa da gurean. Eta ebatzteko eskubidearen alde bagagoz, gure burujabetzaren alde urratsak emoteko prest bagen-

goz... guk be, gure xumean, asko egin geinke, egunero. Otordutan.

Elikadurea, azken baten herritarren eskubide bat da. Lana dan moduan, etxea, bizitza... guztiona. Baseri munduak aurrera egitea gura badogu, Euskal Herrian, Euskal Herriko esnea hartzea da ebatzirik ausartena, baina era berean errezena. Ez izan kaikua, hartu zure ebatzia, egunero, goizero. Gure etorkizunaren alde.

**BATZ**  
BATZ, S. KOOP.  
Tornea Iuzoa, 32  
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

*Beharrez beharrez,  
euskeraz eginez*

Euskeraz  
Batzen gaitu



**LUMATUTEN****IGOR ESTANKONA****Orduen**

**B**adatoz ipar-ekialdetik lehenengo haize hotzak eta badaroz azkenengo haize epelak. Gaur dana ikusten dot baltz, eta ezkorra ekin eta ekin ibili jata, ezin izango dodala udagoienaren melankolia jasan eta erreteari itxi, laneko erritmoari eutsi, etxeko zereginak maneja, aita amultsu bat izan, bikote txeratsu bat izan...

Eta orain ostera, entzun dodanean "aita on bat izan, bikote on bat izan" nire zeregin-zerrenda imajinarioan, pentsau dot behar bada horrexek arduratzen nauela gehien, eta berba horeen definizino egoki bat behar dodala topau. Harrapatuko nabe osterantzean neguko otso grisak, jarraitu eta jarraitu egiten dabenak galduta asmetan daben abelburua.

"Aita on bat izan, bikote on bat izan". Kurioso da baina, hain zuzen, aita eta ama izatea da, askotan, norbera izateko oztopo

handiena, eta bikote baten etsai nagusia. Ze gurean amaxok behar dau Nahia, eta Nahiak behar dau Nikole, eta Nikolek behar dau amaxo eta amaxok Nikole, eta aita danak, eta danak aita, baina ama da ama, eta aita da aita, eta alkar behar dabe aita eta amak be bai. Ez dakit ulertu dan.

Orduan, amaitu diralarik udako ordutegi akabu bakoak eta desorduak eta nahaste gozo guztiak, umeen aldera egin dauan grabedade zentroa eroango dogu apur bat familiara, ze aita eta ama ibili dira sano aita eta ama, eta lau aulkidun mahaiaren inguruan baxokak bere espaziotxo lantzeako astirik be ez da egon bi urte t'erdi lanpetuotan.

Txarrena da papelean lara sartzea eta pentsetea zureak dirala txikerrak, zure pentzura dagozala, zu barik ezin izango dabela, eta zuk be ez eurak barik. Baina umeak persona autonomoak dirala ikasten da azkenean, goiz edo berandu. Gogoz kontra hasieran, pozarren gero, munduko gurasoen aurkikuntza da etxetik dabilen horrek bere eretxi, bere amets, bere itxura, bere gustuak daukazala. Ezin geinke guk ia ezer egin, bakarrik maitatu. Diran moduan maitatu, lagundu gaititzen euren buruari ezarritako mugak, lortu komunikazio bat ona, konfiantza bat esateko: laztanak, zoazie zeuok; orain aita eta amak momentutxo bat hartu gura dabe eurentzat.

**ZERTZEAN****SAIOA LARREA****BEGI TXINDORRA**

**F**rankfurteko (Alemania) merkadu baten atera eban argazki hau Eva Arestik bagileko goiz euritsu baten. Lorak dagoz merkaduan, baina goizaren grisa nagusitzen da espazio ixil honetan. Ez dira "entzuten" merkaduetako oihi eta zaratak, ez da presarik nabaritzen. Euriaren malenkoniak hartu dau dana.

Europa.

Modan dagoz eta fama gehiago daukie leku eguzkitsuetako merkadu zaratatsuak eta "biziak". Ez dot esango hareek ez daukiela xarmarik edo interesik, baina Franfurteko honek beste erritmo bateko bizitza ona sujeritzen dau, bizimodu lasai eta dotorea. Lehengo edo aberatsena.

Gogoratu hilaren 25a dala argazkiak bialtzeko azken eguna. Hurrengo zenbakian argazki saridunak agertuko dira.



  
**LORAZAINTZA**

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.147 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorosti.cl.com

  
**agoa** Ortodontzia  
Inplanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia

Bidebarri 1, behea  
48140 Igone-Bizkaia  
T. 94 631 30 39

Halegaitze Zentrua, 110  
R.P.S. 25/06

  
**JANDONIZ**

nagusientzako etxea  
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com



## IGORRE

# Igorren Euskeraz "Inbiu", euskeraz bizi gura dogu-eta

Zapatu honetan izango da, hilak 22, Igorren urtero ospatzen dan Inbiu euskera eguna.



Lip Dub-a egin zan igaz Inbiu egunean Igorren.

### Erredakzioa

Ekitaldiz beteta dator Inbiu eguna, goizean goizetik hasita eta gaubera arte.

### Mihiluze txapelketearen final handia

Duda barik, martitik martxan egon dan Mihiluze txapelketearen final handia da ekitaldi nagusia. 12:00etan hasiko da eta institutuko gazteak lehenengo, eta herritarrek gero, euren onena emoten ikusiko doguz sariak eskuratzeko. Sariak institutuko gazteentzat *tablet* bana eta herritarrentzat astegoieneko egonaldia dira. Mihiluze joko bana be eroango dabe. Lehiaz gainera, "sorpresa bat edo beste" be egongo dala dinoe Euskera Planekoak.

### Euskeraz bizi gura dot Inbiu 2012

"Euskeraz bizi gura dot" lelopean dator aurtengo Inbiu eguna. Lelo horregaz bete gura dabez Igorrenko kaleak Euskera Planekoak eta kamisetea jantzita urteteko konbitea egiten deutsee herritarrai. Ondino kamisetarik ez daukanak AEKn erosi ahal izango dau, 8 euroan umeenak eta 10 euroan helduenak. Argazki kolektibo bat

be egingo da Lasarte plazan Kontseiluak Euskal Herri mailan antolatuko dauan "euskeraz bizi nahi dut" ekimen herrikoiagaz bat egiteko. Arrastiko bostetan egingo da argazkia, baina hori baino lehen, herri bazkaria egongo da plazan. "Udalak plantxak ipiniko dauz bakotxak etxetik ekarri dauan jana prestatzeko eta mahaiak eta aulkiak be udalak ipiniko dauz, baina kerizpea gura dauanak eguzkitakoa etxetik ekarri beharko dau" dinoe udaletik.

Ekintza gehiago be izango dira euskerearen egun honetan. Izan be, egunari hasierara emoteko trikitilariak ibiliko dira herritik zehar, eta umeentzako jolasak egongo dira 11:00etatik aurrera Lasarte plazan. Institutuko gazteak grafitia egingo dabe eta arrastian, 17:30etik aurrera, AMEk antolatuta musika egongo da. 17:30ean kontzertua Irtenbide talde zomtzatarraren eskutik eta horren ostean Dangiliskegaz eromeria.

Indarrak hartzeako 20:00etan txokolatea egongo da danontzat, Beinkek, merkatarien euskera taldeak antolatuta.

Ekitaldi honeek guztiak Lasarte plazan izango dira aterri badago; euria egiten badau, eskolako aterpean.

## ARRATIA

Sanmigelak emoten deusie amaierara hileari eta honeek santuari eskeinitako gure eremuko lau ermitetan ospatuko dira.

### Erredakzioa

Jaiok Igorrenko Garbe auzunean, Zeanuriko Uriben eta Altzutan eta Arteako San Migel ermitan, hain zuzen be. Lau ermita honeetan mezea egongo da zapatuan, hilak 29, San Migel egunean eta barauskarria mezaostean, musikeagaz alaituta.

Uriben, hiru eguneko jai egitaraua prestatu dabe.

## San Migel jaiak santuari eskeinitako ermiten inguruan



Uribeko San Migel ermita.

**Urbe (Zeanuri)**  
**Urri lehenengoak 22, zapatua**  
**17:00**etan, karta jokoa (Mus eta Briska).  
**18:00**etan, bizikleta martxea umeentzako.  
**21:00**etan, bertso afaria.

**Urri lehenengoak 23, domekea**  
**12:30**ean, mezea eta ondoren

barauskarria. Ondoren umeentzako herri kirolak.

**Urri lehenengoak 24, astelehena**  
**12:00**etan, arimen aldeko mezea eta ondoren barauskarria.  
**18:00**etan, sardinak, urdaia eta txokolatea.



2012/09/22

**10:30 Trikitilariak** herritik zehar **11:00 Umeentzako Jolasak** eta **Institutuko grafitia** **12:00 Mihiluze** final handia **13:00 Kopautxoa**  
Horren ostean **herri bazkaria** - bakotxak etxetik ekarriko dau jana. Udalak plantxak ipiniko dauz bertan jana prestatu gura dauanarentzat eta mahaiak eta aulkiak egongo dira danontzat. Gerizpea gura dauanak dakarrela eguzkitakoa  
**17:00 "Euskeraz bizi gura dot" argazki kolektiboa** Lasarte plazan  
**17:30 Kontzertua eta eromeria** AMEk antolatuta  
Taldek: Irtenbide eta Dangiliske

**20:00 Txokolatea** danontzat **BEINKE** merkatarien euskera taldearen eskutik

Jaialdia kultur etxeko Lasarte plazan izango da, euria egin ezkerreko eskolako aterpean



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



euskeraz bizi  
gura dot





## IGORRE

**Udalak eta merkatariek euskerearen erabilerearen diagnostikoa egin dabe****Erredakzioa**

Azken urteotan, hainbat gizarte esparrutan egundoko ahaleginak egin dira euskerearen erabilera suspertzeko eta normalizatzeko. Horretaz jabeturik Igorreko Udalak urteak daroaz merkataritza esparruan euskerearen erabilera sustatzeko hainbat ekimen lantzean. "Alkarlanean aritu izan gara Beinke merkatarien euskera taldeagaz batera, ekimenak eta

planak definitu eta gauzaterako orduan. Oraingoan be, Beinke taldeagaz batera burutu dogu Igorreko establezimenduetan euskerearen presentzia eta erabilerearen inguruko diagnostikoa. Emoitzak badagoz eta aurrera begirako helburuak eta ekimenak adosteko ikasturteko lehenengo batzarra egin dogu" azaldu deutso BEGITURI Amaia Arauzo Igorreko euskera teknikariak.

Galdetegi hiru esparru na-

gusi bereizi dabez: Irudia eta Errotulazioa, Kanpo Harremanak eta Barne Harremanak. Horreez gain, hizkuntza erispideak eta jarrerak eta usteak be jaso dabez.

**Euskerearen presentzia arautu**

Establezimenduen % 70ek erantzun dabe galdetegi eta emoitzak arloka banandu dabez, bakoak daukazan berezitasunak kontuan hartuta: txikikazko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak.

Galdetegi horretako emoitzak interpretatu eta aurrera begirako ekimenetako bat, euskerearen presentzia eta erabilera arautzeko udalagaz batera hitzarmena sinatzea izango da. Izan be Beinkeko kideen arabera, "oraindino be gabezia asko dagoz oinarritzko kontuetan". Irudia eta errotulazioa egingarria dan arloetako bat da. Lehenengo berbea euskeraz izatea be egingarria dala dinoe, horrek baldintzatzen daualako bezeroak hizkuntza baten edo bestean berba egiterako orduan.



Beinke merkatarien euskera taldekoak.

## ARRATIA

**Bedia-Zeanuri ibaiaertzetik hilaren 22an****Erredakzioa**

Urri lehenengoaren 17tik 23ra Mobikortasun Iraunkorraren Europako Astea dala eta, mankomunitateak Arratia ibai adarretatik eta Ibaizabaletik ibilaldia antolatu dau hilaren 22rako. Aste honetako ekintzen artean hurrengo egunerako bizikleta martxea antolatu dabe Bedian.

Ibai ertzetatik Arratia bailara osoa zeharkatzeko aukerea izango dabe ibiltariak, bertatik doazen oinezko bideak ezagutuz. Hogei kilometro inguru egingo ditue Bediako plaza-tik goizeko bederatziretan urten eta Zeanuriko frontoiraino.

Arratiar guztiak daukie aukerea autoa erabili barik parte hartzeako martxa honetan. Izan be, Bediara joateko autobusa egongo da, 08:15ean Zeanuritik urten eta herriz herri, baita Dimatik be, ibiltariak Bediara eroango dituana. Amaitukeran, 14:15ean be Zeanuritik Bediara ibilbidea egingo dau autobusak. Hornikuntzea Igorreko kiroldegian egongo da eta amaitutakoan barauskarria Zeanurin.

**Kotxe bako eguna Bedian**

Hurrengo egunean, hilak 23, kotxe bako eguna ospatuko dabe Bedian. Bizikleta martxa bat egingo da herrian zehar goizeko 10:00etan urten-

da. Hamaikekan truke merkadua egongo da plazan eta 12:00etan bizikleta bat zozketatuko da bizikleta martxan parte hartu dabenen artean.



Igazko martxako partaideak.

## IGORRE

**Urri bigarrenaren 2an aurkeztuko da parte-hartzeako sistema barria****Erredakzioa**

Igorreko Udalak bertako herritarraz egungo errealidadearen diagnostiko globala egin dau eta aurrera begirako parte-hartzeako sistema diseinatu dau; hau da, "herritarrik udalari mailako politikan zertan, noz eta zelan eragingo daben zehaztu da" udal iturrien arabera.

2011ko udagoienetik 2012ko bagilera bitartean 6 foro egin dabez. Prozesuaren helburua udalerriko gai publikoetan herritarrik parte-hartze zuzenagoa izateko oinarriak lantzea izan da. Guztira 87 lagunek hartu dabe parte horretan, tartean

politikari, teknikari, herritar antolatu eta herritar antolatu bakoak.

Foro honeetan aurrera begirako lehentasunak eta egitura zehaztu dira. Esate baterako, Plenoko ebatzi formaletatik harago herritarrik parte hartzeako, eztabaidatzeko, zalantzak argitzeko eta ekarpenak egiteko gune barri baten beharra sumatu da eta hori sortzeako oinarriak landuko dira ondorengo hilabeteetan. Beste proposamen ugari be landu dira prozesu honetan zehar, eta horreen guztien aurkezpena egingo da urri bigarrenaren 2an, arrastiko 18:30ean, Igorreko Kultur Etxeko areto nagusian.



Sei foro egin dira Igorren.

## IGORRE

**Inbersino soziala onartu dabe Bardintasun arloan izan ezik****Erredakzioa**

Kurtso politikari hasiera emon eutsan udalbatza urri lehenengoaren 10ean izan zan. Hilabeteetan zehar batzarretan eta komisinoetan eztabaidan egon ziran gaiak osoko batzarrera eroan ziran eta bederatzik kreditu aldaketatik zazpi onartu ziran "inbersino soziala indartzen dabena" Igorreko Bilduren arabera. Gizon eta andren arteko bardintasunerako diru partidari, barriz, ez zan onartu.

Igorreko Bilduk jakitera emon dauanaren arabera, Memoriaren bankua sortzeako 15.000 euro onartu dira, ongizateak 18.000 euro eroan ebazan, jaien komisinoak 10.000 euro gehiago jasoko ditu. Kultur taldeen diru laguntzak 10.000 euro handitu dira eta baita kirol taldeenak be. Euskararen normalizaziorako 3.500 euro onartu dira, merkatarieri 2.000 eurotan igo jakie urteko diru laguntza eta Agenda 21erako 2.276,99 euro.

**Onartu bako proposamenak**

Bardintasunerako 14.000 euro onartzea zan Bilduren proposamena baina proposamenak ez eban aurrera egin. Bardintasun politikak ezarteko Mankomunitatearen teknikaria nahikotzat dauka Igorreko EAJ-PNVk, Igorreko Bilduk prensa ohar batez dinonaren arabera. Feministak, barriz, partidu guztietan diskursoa bardintasunaren aldekoa izan arren, horretarako dirurik ez ipintea salatuten dabe. "Gauza batetik edo bestetik, beti dira bardintasun politikak diru barik geratzen diranak. Ez da kasualidadea" dinoe.

Langileen soldaten ingurukoa izan zan onartu barik geratu zan beste puntu bat. Bilduk udal-langileen soldatak mantentzearen alde egin eban, KPI igoz, holan eros-ahalmenari eutsi ahal izateko. Proposamenak ez eban aurrera egin EAJ-PNV eta IDren kontrako botoakaz.



ARRATIA

# Hilaren 26ko grebara deitu dabe sindikatuak eta gizarte eragileak

Hilaren 26an greba orokorrerako deia egin dabe ELA, LAB, ESK, CNT, CGT, STEE-EILAS, Hiru eta EHNE sindikatuak eta gizarte eragileak, herritarren oinarritzko eskubideen kontrako erasoak "biderkatu" egin diralako.

Erredakzioa

Martiaren 29ko grebaren jarraipena izatea gura dabe deitzaileak. Orduan erantzuna "sendoa" izan bazan, hilaren 26an oraindino handiagoa izatea espero dabe "orain arrazoi gehiago dagozalako kalera urteteko".

Grebaren antolatzaileak Bilbora joateko deia egiten dabe. 11:30ean Bilbon zutabe desbardinak urtengo dira; udaletxea, Zabalburu, Deustuko zubia eta La Salveko zubitik. Manifestazioa 12:15ean urtengo da Plaza Eliptikotik. Igorren be manifestazioa egongo da arrastiko 18:30ean, udaletxeke plazan hasita.

Raxoiren gobernuaren murrizketa gehienak derrigor bete behar dira gurean be, nahiz eta hareetako batzuk indarrean ez sartzeak moduak bilatzen dabiz Eusko Jaurlaritzaren eta gizarte eragileak. Dana dala, 65.000 milio euro au-

rezteko asmotan, Raxoiren gobernuak langabezi saria murriztu dau, alokairurako laguntzak be murriztu dauz, 400 euroko diru laguntasuna lehendik behar egin dabenezat bakarrik izango da, BEZa % 21era igo dau, funtzionarioai Gabonetako saria kendu deutse eta enpresa publikoak gitxitu ditu, beste neurri askoren artean. Gainera, osasun prestakuntzak murriztu ditu eta botiken berrordainketea ezarri dau. Eta hezkuntzari jagokonean, irakastegitxio egongo dira eta, beraz, ikasle gehiago klase bakotxeko. Unibersidadeko tasak be karutu egin dira eta aldizkari honek kon-sultautako iturrien arabera 150.000 ikasle gitxiurik matrikulatu dira aurtun unibersidadean Espainian, ustez prezio igoereari aurre egin ezinda. Andren kontrako indarkeriaren prebentzioak be diru murrizketarik handienetakoa izan dau Espainiako aurrekontuetan.



## Euskal Herrian Murrizketarik EZ

100.000 milio euro banku ordaintzeko, 100.000 milio euro bertan ordaintzeko nahiz dabilenak. Madrilek, CAE eta Nafarroako gobernuak krisian erantzuleak sartzen jarraitzen dute, hertzeren gaitzespena gertatzen duten bitartean.

Raxoiren gobernuak inposatu nahi dituen murrizketa eta neurri berriak erantsi gure eskubide sozial eta laboralen laguntza beintzat da: prestakuntza murriztu eta langabeziak laguntza kendu nahi dituzte. BEZa igozten dute, sektore publikoa pribatizatu, osasungintzan berrordainketea ezarri, enplegu autuak, murrizketak dute pertsonak bertan behar utzi... eta guk hiru helburu bakarrekin gu gure izateko sartu gaituzten zutoz ezalako dugunik, botereak murriztu jarraitzen duten bitartean, dibidenduak banatzen, jergordainketai hies egiten eta euren sortu duten zor publikoaren eskuzkatzen.

Inoz izan den inuzurrik handienaren aurrean gaudu. Bankuak emateko diru publikoak dagoen bitartean krisiak jarraitu egingo du. Merkaturako balizko atzokapen behar dute bankuak balizko beharrezko den diru gutxiarekin egongo dela" dioten politikak duden arrian, ez da krisirik irabazterik egongo, ez justizia, ez demokratia.

Pobrezia kondenatzen gaituzte basketik, gutxi-gutxi, baina bidez ere kolektiboki zaurjari eta prekarizatuak gaituzte, emakumeak, pertsonak, etorkinak, desagertuak dute pertsonak eta gurea bakarrik familiarak. Ez da egoia hau dela bide posible bakarra. Hau da aukeratu dute bidez, egiten ari direnaren jakitun eta kontziente izandik: lan eta genero esploratze bidez, prekarizazio sozial eta diskriminazioak.

Beharrezko sakrifizioak hiru egiten dituzten gobernuak ez dira ari kasualak inongo sakrifizioak behartzen. Gutxi kontrario, ekonomia kontrol politikoa eta sozial oro ari dira ezabatzen, kapital hori lan daren momentu gutxiarekin bere nesketan zer egin erabaki duna.

Egun Gaituzte zein inuzur gobernatzen ari direnak beharrezko laguntza diru inuzur emateko horretarako. Kapital finantziarioaren inuzur utzi dituzte gure herriko politika eta iruak, behin eta berriro, Madrilek egiten dituzten murrizketa gutxi inposatzen dituzte. Baina bedira baina bertako murrizketak, diru sarrerak bermatzeko errenda CAE eta oinarritzko errenda Nafarroan.

Bada ordua EUSKAL HERRIAN beste eredu baten aldeko egiteko. Gure parte hartzearen oinarritutako eredu eta ez bania eta multinazionalen agindurak. Aberrietasuna eta lan produktiboa eta erreproduktiboaren bidezko banaketa inarrutikoa dena. Zerbitzu publikoak benetan publikoak, unibertsitate eta eskolak eta berrituz dute lan bizi izate bermatzeko duen babes soziala izango dute eredu. Azken finean, ekonomia pertsonen zerbitzura eta ez merkaturu zerbitzura jarriko dute eredu.

Bada ordua Euskal Herriko instituzioei planto egiteko. Bada ordua Madrilek inposatu nahi dituzten diktadura ekonomikoaren aurrean planto egiteko. Bada ordua HEMEN, Euskal Herrian, murrizketa eta neurri antisozialak APLIKATU EZ DURELA, ezteko, horrela eskatu eta argi utzi duzue gaituzte sozialak mobilizazio opari eta gure erakunde bidez eta horrela oihukatu eta erabaki duplikatu irabazten 26an.

ARRATIA

# Igorreztar bat osasungintza sailburu izateko hautagai

EH Bilduk urri lehenengoaren 8an aurkeztu eban Eusko Jaurlaritzarako proposatzen dauan gobernu taldea.

Erredakzioa

Bertan igorreztar bat dago, Itsaso Bengoetxea osasungintzako sailburu gaituzte. Itsaso Bengoetxea ez

da partidu bateko kidea. "Ezker-tiar eta abertzale" moduan definitzen dau bere burua eta 2011ko maiatzaren 22ko udal hauteskundeetan aurkeztu zan

lehenengo aldiz Igorreko Bilduko zerrendetan, 7.a, eta independente moduan agertzen zan.

Bengoetxea Bilbon jaio zan eta Igorren bizi da. 35 urteko mediku hau zaintza aringarrietan espezializatu da eta Galdakaoko Ospitaleko etxeko ospitalizazio zerbitzuan egin dau behar azken bost urteotan. Lehenago, familia mediku moduan urte pare batez egin eban behar hainbat ambulategitan. Lan osasunaren arloa be ezagutzen dau Bengoetxeak Fre-map mutuan eta Eusko Jaurlaritzako Osalaren egin daualako behar.

**URRIAK 13 ZEANURI (Bizkaia) 13 Octubre**  
EGUZKILORE SARI NAGUSIA

**EGITARAU\***

URRIAK 12 OSTIRALA	PROGRAMA*
19:00 Dortsalen banaketa	Viernes 12
20:00 Alex Talloren emanaldia	
Proyección de Alex Talloren	
URRIAK 13 LARUNBATA	Sábado 13
05:30 - 07:00 Dinekoen inskripzioa	
07:00 - 09:00 Dortsalen banaketa	
07:15 Martxoaren Irteera (A eta B ibilbideak)   Salida de la marcha a pie	
09:00 Alex Talloren emanaldia	
09:15 Lasterketaren Irteera (Absolutua eta Sub-23)   Salida de la carrera	
10:00 Umeen martxa	
10:30 Umeentzako jokoak, slackline, rokodromoa...	
14:30-15:00 Herri bazkaria   Comida popular	
18:00 Bizkaiko Triatloia Txapelketaren finala	
23:30 Bidean Galduta kontzertuan eta erromeria Zirkunik bez taldearekin	

**URRIAK 14 IGANDEA** Domingo 14

12:00 "Emakumea eta kirola" mahai-ingurua: Maider Urida, Oihana Kortazar, Irati Andía eta Nelia Alaiola. Mesa redonda "Mujer y deporte"

13:30 Mokadua IGITE Amaitzeko ekarri eta abeltzainen elkarrekin prestatuta

**ANTOLATZAILEAK**

**LAGUNTZAILEAK**

**BAIESLEAK**

**Irailak 26**  
septiembre  
**GREBA OROKORRA**

eskubide laborala eta sozialen alde

**Greba deialdiko eskuorria.**

**begitu 10 urte**  
arratia ubide zeberio



MARIBEL EGILUZ

# "HIESa arazoa handia da eta ez gagoz preserbatiboaren kontra"

Maribel Egiluz igorretarra gaixotasun tropikaletan aditua da bere formazino zein bere lan esperientziagaitik. Medikuntza tropikala Zaragozan ikasi ostean, Zairera (gaur egun Kongoko Errepublika Demokratikoa) joan zan ikasitakoa praktikan ipinteko. Han emon ditu 40 urte eta bere jubilazioaren hurrengo egunean egon zan BEGITUGaz hango egoerearen barri emoten. Dana dala, egun batzuk beranduago Kongoko Errepublika Demokratikora bueltau zan, "indarrak dituan bitartean" han egon gura dau eta. Afrika erdiko erdian dagoan herrialde honetan gertatu diran injustizien testigantzea eta Giza Eskubideen urraketearen salaketea dakarguz moja frantziskotarrak lerrootara.

## Erredakzioa

### Zein da zure beharra han?

Kongoko Errepublika Demokratikoa sano herrialde handia da. Nik gauza asko egin dodaz han, baina batez be gaixoakaz egon osasun zentroetan persona guztiai zaintzak emoten, pobreenai be bai.

Joandako lehenengo aldietan kapitalean egon nintzan, gaixotasun tropikalak osatuten. Han hiru urte eta erdi egin nebazan, bertako medikuakaz eta gauza asko ikasi nebazan. Baina berrogei urteotan, herrialde osotik ibili naz.

### Zein egoeratan dago herrialdea osasunari jagokonean? Badauka gizarte segurantzaren sistemarik?

Han lehen mailako osasun arretak emoteko zentroak dagoz **Horrekin gobernuaren eskue-tan dagoz?**

Ez. Eleiza katolikoaren eskue-tan. Gobernuak bere ospitaleak daukaz baina ez dago gizarte segurantzarik. Ospitalean operazioak eta tratamendu guztiak egiten dira. Baina izugarria da. Gaixoak zelaian egoten dira, tratau barik eta ixten dabez hiltzen... botikak eta dana gaixoak berak erosi behar dau.

### Orduan esan leiteke, osasuna eleiza katolikoaren eskuetan dagoala?

Gehiena. Osasunaren Mundu Erakundeak herrialde pobretuetarako lehen mailako arretak ezarri zituan, derrigorrezkoak diranak eta horrekin eleizearen esku dagoz. Eleizeak osasun zentroak daukaz. Amaetxe bat be ipinten da ondoan eta ebakuntza txikiak egiten dira zentro honeetan, apendizak eta holakoak. Ospitaltxo bat eukiten dogu, 100-140 ohe ingurukoa. Beharrezkoa da, ze han kapitalean, 10 milioe biztanle inguru dagoz eta 52 anbulatorio.

### Pentsetan dot osasunagaz lez, hezkuntzan be bardin antzera

### gertatuko dala. Hori be eleiza katolikoaren eskuetan dago?

Estaduak hartzean dau hango maisu-maistraia pagetako kargua, baina irakasleen soldatea 100 dollarrera ez da heltzean, lizentziadu eta zuzendariena 140 dolar gitxi gorabehera. Eskola guztia gurasoak pagau behar dabe.

### Belgikako kolonia izan zan lurralde hori. Han, etnia desbardinak bizi dira, zelango hartu-emonak ditue euren artean?

Etnia eta klan asko dagoz. Antzeko etniak batzean dira klan baten. Etniak eta klanak, indar handia daukie Afrikan. Etnia bakotzak bere hizkuntza dauka: tshiluba, lingala, swahili eta kikongo dira, frantsesaz aparte, Kongoko hizkuntzak. Han biziteko ikasi behar dozuz hizkuntza horrekin.

### Gobernuan ze etnia edo klan dago?

Gobernuburua, Kabila presidentea, katanga taldekoa da. Horrekin hizkuntza swahilia da. Ministroen artean beste klan batzuetakoak be badagoz.

Baina gerrea daukagu han eta hori da arazorik larriena. Gerreagaz herria gero eta pobregoa da. Aberastasun asko ditu Kongok, baina politikoak aberastasun guztiak eurentzako, laguntzako eta ministroentzako hartzean ditue. Eta herriarentzat ezer be ez. Herrialde aberatsak, Mendebalde, Amerika... danak dagoz inplikautan horretan. Eurentzat dira aberastasun horretatik ateratzen diran etekinak. Mineraletoak, berba-

### Hauteskundeak txarto

eginda egon dira. Dana izan da guzurra... eta emoitzea iruzurra izan da



Maribel Egiluz umeakaz Kongoko Errepublika Demokratikoan.

rako. Munduko koltanaren % 80 Kongotik ateratzen da. Koltana eskuko telefonoak eta beste aparatu elektronikoak egiteko erabiltzen da. Baina honen etekinagaz beste herrialde batzuk aberasten dira.

### Gerrea ekialdean dago, Ruandaren muga. Azaldu apur bat gerrearen motibazioak.

Ruandak lurralde hori bereganatu gura dau, ze Ruanda txikia da. Interes asko dagoz. Oraingo presidentearen aitak Mobutu kendu eban poteretik Ruandaren laguntasunagaz eta orain Ruandak kontuak eskatzen deusaz Kabilari, haren semeari. Lurra eskatzen dau.

Hor sano drama handia dago. Jente asko dago hiltzen eta gehienak andrak eta umeak dira. Neskak eta andrak modu masiboan bortxatzen ditue.

### Gerra arma moduan. NBE ez da horretan sartzean?

Hantxe dago, presente dago, baina horrekin ez dabe interbenziorik egiten, begirale moduan dagoz. Bortxaketa horrekin salatu

egin doguz eta mundu guztiko andrak etorri dira hori salatuteko. 5.000tik gora egon ginan 2010ean. Baina ha ta guzti be, horrek segidu egiten dau eta ez da gelditzen.

Hori da dramarik handiena. Andra asko hiltzen da. Eta gero euren umeak. Umeak ez dira elikatzen behar dan moduan eta badagoz umeak goseak hiltzen diranak.

### Eta hori ez da bakarrik gertatzen herrialdearen ekialdean, gerrea dagoan lekuan ezta?

Ez, ez bakarrik. Gauzak ez doazenez aurrerantza, atzerantza baino, miseria gorria dago. Sistemaa ustelduta dago. Jentea gero eta pobregoa da eta umeak gosez hiltzen dira gero eta gehiago. Gure zentroetan gero eta ume gehiago hartzean doguz malnutrizioak jota. Hori problemea herrialde osoan dago zabaldua.

### Zure ustez zein izango litzateke urtenbidea?

Eurak izan behar dira euren herriaren jaube eta eurak gobernau

euren aberastasunen jaube izan da.

Orain be hauteskundeak txarto eginda egon dira. Dana izan da guzurra... eta emoitzea iruzurra izan da. Eta hori dana salatu egiten dau eleizak.

### Eleiza katolikoak?

Eleiza batzuk. Ofizialak katolikoa eta protestantea dira. Eta gero be badagoz ortodoxoak eta musulmanak. Honeek, musulmanak gero eta gehiago dira.

### Batzean zarie erlijino desbardinak injustiziak salatuteko?

Bai. Orain politika kontuan eleiza eta konfesino guztiak parau dira batera hori salatzeke. Eleizan tensio handitan gagoz, egoera ez dago bape be ondo eta.

**Ze hartu-emon daukiez euren artean hango eleiza katolikoak eta Eleiza katoliko ofizialak? Esate baterako, Eleiza katoliko oso beligerantea da sexualidadeagaz, baina pentsetan dot, han, daukien**



### egoereagaz ez dala hori izango diskursoa.

Personen eskubideak errespetatu egin behar dira eta hori da gure kezka nagusia, behar dan moduan biziteko eskubidea danok euki behar dogu. Mundu guztiari esan behar jako hemen Giza Eskubideak ez dirala errespetetan eta hori da aldatu behar doguna. Horixe da eleizak daukan eginkizunik inportanteena.

Horretarako martxa bat egin da, eta bertan konfesino guztiak hartu dabe parte.

### Dinozu eleizearen eginkizun inportanteena Giza Eskubideen alde egitea dala, eta baita be dinozu andren giza eskubideak dagozala batez be urratuta.

Eleizako mobimentuak andrakaz batera doaz. Ekialdean dagoan gerran bortxaketa masiboak salatu ditue askok, horretarako parau dira mobimentu guztiak: eleizakoak, nazinoartekoak, andren mobimentuak... konzentrazioak egiten, Bukavun eta Goman egin zituen eta mundu guztian jakin zan horren barri. Baina gauzak ez dira aldatu.

### Han bizitza esperantza 47/51 urte ingurukoa da (OME, 2009). Zeintzuk dira gaixotasun larrienak eta gehien hiltzen dabena?

Gehien hiltzen dauana oraintxe, malaria da. Umeak jaiotortuko eukiten dabe amak transmitiduta. Eta ez bada tratetan hilgarria da. Ume txikiak arrisku handia daukie eta mortalidade handia dago. Haur Mortalidadea sano handia da.

Gero, badagoz gaixotasun batzuk, lehen menperatuta egozkanak, desagertuta ia, indarra hartu dabena. Tuberkulosia esaterako. Lehen kontrolauta egoan, baina orain atzera agertu da eta indar handiagaz gainera. Tuberkulosia HIESagaz batera agertzen da eta jente asko hiltzen dau. Gu gagozan lekuan dago mundu osoko porzentajerik handiena.

### Zuek badaukazue HIESaren kontrako botikak eta?

Bai, antirretroviralak doban daukaguz. Eta maternidadeetan emoten doguz gehienak. Baina danak ez daukie tratetako posibilitaderik, erdia inguruk ez. Medikamentuak ez dira nahikoak. Eta transmisio hori aurrera doa, aurrera doa, aurrera doa...

### Zuen politikea nondik doa. Hau da, preserbatiboaren alde egiten dozue?

Bai. HIESa arazo handia da eta ez gagoz preserbatiboaren kontra. Alderantziz, emon egiten doguz preserbatiboak tratamenduagaz batera. Derrigorrezkoa da. Preserbatiboak erabili egin behar dira. Konturatu gara gitxiago kutsatzen dala preserbatiboak erabili ezker. Eleizeak esaten dauana errespe-

tau behar da, baina mediku moduan ikusi dogu preserbatiboak emon egin behar dirala. Hori da hartu behar dan neurri bat.

### Botikak doban daukazuezala dinozu. Nor hartzean dau horreen kargu?

Bai, HIES eta tuberkulosiaren kontrako botikak doban daukaguz. Europar Batasunak emoten deusku botika horreek. Europak gaixo guztiak tratetako kargu hartzean dau. Tuberkulosi kasu bat topau ezker, gaixoak doban dauka tratamendu osoa. Bere fitxa baino ez dau pagau behar. Tratamendu osoa, luzea da, zortzi hilabetekoa.

HIESari jagokonean nazinoarte mailan hitzarmenak dagoz antirretroviralak Afrikan doban izateko.

Gero be parasito intestinalak ume asko hiltzen dabez, beherantzakoa eragiten dabe eta deshidratauta hiltzen dira umeak.

### Bai, ezer gitxi jan eta holango beherantzakoa, akabo.

Epidemiak be eukiten doguz, kolera, esaterako. Eta hor beste bat indarra hartu dauana, polioa. Lehen kontrolauta egoan mundu osoan baina orain foko batzuk euki doguz. Ni atez ate ibili naz txertoak ipinten. Polioak indarra hartu dau eta ez bakarrik umeak, helduak be harrapatzen dabe. Eta helduetan larria da, hil egiten dira.

### Nondik ateratzen dau jente gehienak bizimodua?

Askok dagoz lan barik. Lurra lantzean dabe, oiheran kapitalean baino gehiago, jakina. Lurra aberatsa da. Guk osasun-heziketea egiten dogunean, lurra lantzeako tresnak emoten deutseguz. Baina ha ta guzti be, lurra ez dabe askorik lantzean.

Merkataritza asko egiten dabe. Industria bat edo beste be badago, oiherak eta egiteko. Eta garagardo fabrikak... eta soldata txiki bat daukie. Gero karreradunak, maisu-maistrak, medikuak, ingeniariak...

### Eta honeek, karreradunak bertan gelditzen dira ala Europara etorten dira?

Gitxi gelditzen dira, bai. Ahal dabena urtetan dira, ze ikusten dabe euren herrialdean ez dagoala etorkizunik.

**Zuek zenbat moja zagozie han?** Kongregazioan 180 inguru gagoz Errepublika Demokratika guztian. Gehienak bertakoak dira, kanpokoak gitxi gara. Espainiatik

### Kongon bortxaketak

### eta sexu indarkeria

### endemikoak dirala

### dino Ammesty

### Internationalek

4 edo 5, Asiatik etorritakoak be badagoz, India, Japon, Korea eta, Madagascarretik... Hegoamerikatik be bai: Peru, Txile, Kolonbiatik... eta Europatik Polonia, Frantzia eta Belgikatik batez be.

### Jesuitak be egongo dira han.

Bai, eta indar handia daukie. Ehundik gora dira eta etxe eta ikastetxe handiak daukie. Kanpotik laguntasuna daukie eta laguntasun horregaz beste baliabide batzuk daukie. Ikastetxeak onak dira eta jentea hobeto pagauta dago.

Salesianoak be badagoz, maristak, Eskola kristauak, karmelitak, dominikak, frantziskanoak... kongregazio handienak danak dagoz han.

### Beste konfesinoak arlo ber-

### beretan ibiltzen dira? Hau da, osasun eta hezkuntzan?

Bai. Gitxiago, gitxiago dira, baina euren eskolak eta euren ospitaleak daukiez.

Erlijino guztiak garapen arloan egiten dabe lan: elbarrientzako zentroak, kaleko umeentzakoak... Klean ume asko bizi dira.

Hori dana dago eleizen eskuetan.

### Eta Gobernu Kanpoko Erakundeak?

Badagoz batzuk inportanteak eta beste batzuk indar handirik ez daukienak, baina han dagoz eta behar egiten dabe. Akaso egongo da baten bat aprobetxau egiten dana, baina ni ez naz sartzean holango detaileetan. Orokorrean behar asko eta ondo egiten dabe:

gauza asko salatzen eta jenteari lagunduten.

Gazteak arazo handiak daukiez. Bortxatutako neska gazteak esaterako. Badagoz hamasei edo hamazortzi urteko neska, bost edo seik bortxatu dabezanak, neska horreek apurtuta geratzen dira. Eta horreek laguntza psikologikoa behar dabe eta tratau egin behar dira.

### Andren kontrako biolentzian leku guztietan geratzen da motz prebentzioa eta inpubertate handia egoten da.

Bai. Guk lan asko egiten dogu edukazioan, prebentzio moduan eta laguntasuna emoten deutsegu euren jakin daien ze portaera euki behar dabena.

## Bortxaketa masibo eta sistematikoak ez dira amaitu Kongoko EDn

### Erredakzioa

2010eko urri bigarrenaren 13tik 17ra, zarratu eban Emakumeen Mundu Martxak bere hirugarren ekintza Bukavun (Kongoko Errepublika Demokratikoa). Han, mundu osotik joandako andrak manifestau ziran andren kontrako indarkeriaren modu guztien kontra, tartean gerra arma moduan erabilitako bortxaketen kontra, hain zuzen. "Herrialde honetan bertako zein nazinoarteko talde armatuak andron duintasuna ez dabe errespetetan eta hau zigortu barik geratzen da" salatu eben orduan Bukavun egondakoak eta justizia eta erreparazioa eskatu eben indarkeria honegaz amaituteko.

Egun batzuk lehenago be, urri lehenengoaren 21ean, 600 personatik gora urten ziran Gomako kaleetara Pakearen Nazinoarteko Egunean gerra arma honegaz amaituteko eskatzeko.

### Amaitzen ez dan andren kontrako indarkeria

Herrialde honetan, bortxaketak eta sexu indarkeria endemikoak dirala dino Amnesty Internationalek eta gobernuko segurtasunak, polizia barne, eta talde armatuak bortxatzen dabez andra eta neskatxiak. 2010ean mundu osoko medioetan salatu zan egoera hau, baina, epaiketa batzuk egin ziran arren, erasotzaileak zigor barik geratu ziran eta armadak eta talde armatuak bortxaketa masiboak modu sistematikoan praktketan jarraituten dabe.

Holan, batzuk aitzearren, 2010eko abenduan eta 2011ko urtailan FARDCKo soldaduak bortxaketa masiboak egin zituen Ipar Kivun eta Hego Kivun. Aprilean, polizia batek 16 urteko neska bat

bortxatu eban Kasain; 2010ko zementia eta 2011ko urtaila bitartean, FDRL talde armatuak gitxienez 102 andra eta ume bat bortxatu zituen Katanga eta Hego

Kivun; 2011ko bagilan, bi taldeen arteko istiluetan talde biak egin zituen bortxaketa masiboak Mutongon, Walikalen eta Hego Kivun, Amnesty Internationaren arabera.



## Kongoko Errepublika Demokratikoa\*

Munduko herrialderik pobreenatzen jotzen da. 2011n 0,286ko Giza Garapen Indizean (GGI) 187. postua izan eban.

**Uri nagusia:** Kinshasha.

**Hizkuntza ofiziala:** frantsesa (lingala, kikongo, swahili eta tshiluba be nazino hizkuntzak dira).

**Gobernua:** Errepublikoa.

**Presidentea:** Joseph Kabila.

**Independentzia Belgikatik:** 1960ko bagilaren 30ean.

**Eremua:** 2.345.410 km<sup>2</sup>.

**Biztanleak:** 71.712.867.

**Dentsidadea:** 30,57 biztanle/km<sup>2</sup>.

**GGI (2011):** 0,286 (187).

\* Iturria: wikipedia.



## MENDI-LASTERKETEAK

## Gorbeiaiko argazkirik onenak sarituko dauz Eguzkilorek



Gorbeia.

## Erredakzioa

"Gorbeia Suzien Eguzkilore Sari Nagusia" mendi-lasterketea eta marxearen zehaztapen guztiak lotuta dagoz honezkerok, eta horreen barri emoten dabe Arratia osoan topau daitekezan kartel eta triptikoak.

Horrezaz gainera, antolatzaileen

zabalkunde-kanpaina aurrera doa. Kanpaina horren barruan, esate baterako, aste honetan argazki-lehiaketea ipiniko dabe martxan Interneten, eta argazki irabazleentzako sariak Eguzkilorek emongo dauz. Parte hartu gura dauanak Gorbeia agertzen dan argazkia edota Gorbeian ateratako argazkia bialdu beharko dau gorbeiasuzien@gmail.com helbidera, izen-abizenakaz eta telefono zenbakiagaz batera. Urri bigarrenaren 10era arte aurkezten diran argazkiak Facebooken eskegiko dabez antolatzaileak, eta horreetatik bi izango dira irabazle; alde batetik, sare sozialean "Atsegin dut" gehien lortzean dauzan argazkia, eta bestetik, epaimahaiak aukeraturakoa. Eguzkilorek zintzilikario bana emongo deutse garailei urri bigarrenaren 13an Zeanurin, mendi-lasterketearen sari banaketan.

## TXIRRINDULARITZEA

## Esti Garcia bigarren Lezaman

## Erredakzioa

Esti Garcia lemoztarrak bigarren postua egin eban Lezamako MTB Maratoian, hilaren 9an. Honezkerok, aurten Bizkaiko eta Euskadiko maratoi txapelketetako eta Euska-

diko MTB Cross Country Openeko txapelduna da Garcia. Eta lehenengo postuan dago Euskadiko Maratoi Openean, hori amaitzeko lasterketa bakarra falta danean. Julen Zuberok ostera ezin izan eban Lezamako proba amaitu, txirringa zulatu jakon-eta.

## ESKALADEA

## Munduko txapelketarako entrenetan dabil Zabala

## Erredakzioa

Itziar Zabala eskalatzaile dimoztarra 20 urtetik beherako kategoriako Espainiako txapelduna da eta Frantzia jokatu dan mundu txapelketea prestatzen dabil. Txapelketa hau zemendiaren 1etik 4ra jokatu da Gemozac-en.

Txapelduna bere kabuz entrenetan da, ez dauka entrenatzailerik eta. "Modu desbardinian egiten dot, helburuaren arabera. Ez da bardin bloke zein zailtasun txapelketea, batean indarra eta bestean erresistentzia behar dira eta" azaldu dau Zabalak.

Dimoztarra absolutuan zein bere kategorian neurtzen da gehienez.

tan. Ez zan hala gertatu bagilaren 21ean Gijonen jokatu zan Espainiako txapelketan "orduak bakarrik nire kategorian hartu neban parte. Bezperan izan zan absolutua eta ezin izan nintzan sasoz heldu parte hartzeako". Bere kategorian, baina, ez bakarrik aurkeztu, irabazlea be izan zan arratiarra.

## Zaletasuna zabalduten

Hain gaztea izanda be, Espainiako txapelduna bere edadekoen artean zaletasuna zabalduten saiatzen da. "Institutuko batzuei eskalada eskolak emoten deutesdaz. Mendizaletasun eta eskaladea gustukoa daukie gazte askok Arratia" dino Zabalak.

Txapelketetatik kanpo, mendian eskaladea egitea be gustetan jako Itziar Zabalari. Dana dala, aurreko kursoan, denpora faltan edo "gura baino gitxiago egin neban, batez be Baltzolan" dino.

Orain txapelketan ahalik eta posturik onena lortzea dauka helburu eta horretarako gogor entrenetan dabil.



Itziar Zabala

## MENDIA

## Austarrik buzoia ipini dau Tontorrandin

## Erredakzioa

Zeberioiko Austarri Mendi Taldeak Zeberio eta Mandoia bitartean kokatuta dagoan Tontorrandin mendian buzoia ipini dau. 525m. dituan mendi honek muga egiten dau Galdakaogaz. Sasiz beteta egoan bidea be berreskuratu

dau Austarrik auzolanaren bitartez.

"Orain, Mandoiara hurreratzen danak aukera parebakoa izango dau Tontorranditik pasetako eta gura izan ezker buzoian txartel bat ixteko. Aitatu beharra dago buzoitik metro gitxitara Zeberio mugatzen dauan "C 3" mugaria dagoala ikusgai" azaldu deutso begituri Iker Mendiola Austarrikoak

Hilaren 30ean, Austarri Mendi Taldeak antolatuko dauan "Zeberio ezautuz" izeneko mendi urtekeran, aukerea egongo da buzoia hau ezagutzeko.

## PELOTEA

## Agirre Igorren entrenatzaile

## Erredakzioa

Gure inguruko pelota eskolak zabalik daukie izena emoteko epea eta prest dagoz ikasturte barriari ekiteko. Aurten, Igorreko eskupelota eskolan Imanol Agirre Arteako pelotari profesionala egongo da entrenatzaile Izei Gomez Igorreko pelotariaren laguntzeagaz.

Umeen moda 0-20 urte

- Botoli
- Ray
- Aranda
- Akur
- Gutsaber
- Aranzaga
- Gantelak
- Ite
- Hassan

**sein**

LEHENDAKARI AGIRRE, 27 • 946 319 296  
seinmoda@hotmail.com

**GARANTXE Autoeskola**

TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ

Balazteko: A1, A, B1, B2

Lehendakari Agirre 31  
Telefono: 94 673 71 32  
48142 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@euskalnet.net

**AKESOLO, S.A.**

GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERRITZUAK

Garbe, 29 • Telefonoa: 94 673 60 14 • IGORRE BIZKAIA

**ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA**

Instalazio elektrikoak • Aberiak  
Telekomunikazioak  
Material elektrikoak

Juan de Ajujagerra 1 Behea 48330 Lemoa  
Tlhoa-Faxa 94 6312576 • Mug. 647405115

**BIXER TABERNA**

Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

**axular**  
kultur elkarrizketa

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**indar**  
instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4  
48142 ARTEA - BIZKAIA  
T. 94 655 47 19  
indars@indars.es • www.indars.es

**AKEITEGIA**

**GAY & LORA**

**IGORRE**

Emilio Goitia banatzaile ofiziala

**San Miguel**

Ardoak Edariak

94 673 64 02 • Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

AHOLKULARITZA:  
LEGI-LAN ARLOAN

**ZUZENBIDE**

ZERGA ETA DOKU KONSTURTAN  
ONDARUN HIGUZZINEN  
ASBUURTAN

Sabino Arana, 3 Tlhoa 94 673 71 41 • Faxa: 94 673 64 01 • 48140 IGORRE

**Jose Luis Corbacho**

**pintura lanak**

Sabino Arana, 3, 3a • 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

**ekin s.a.**  
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK  
INDUSKETAK  
GARRAIOAK  
UR SAREAK  
SANEAMENTSU SAREAK  
BASERRI ETA BASORIKO BIDEAK  
PABELLOAK  
URBANIZAZIOAK

Iturritz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25  
e-posta: c.ekin@telefonica.net

**Pinturas Anatia**

Javi Morato

Tel. 628 443 992



## MENDIA

# Groenlandiatik bueltan, aizkoran dabil Txikon

### Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 3an heldu zan Alex Txikon Lemoara Groenlandiatik Ulamertorsuaq mendia igo ostean. Hamar lagunek osotuten eben espedizinoa eta batzuk jauzi egin dabe mendi honetatik. "Hamalau salto, guztira" lemoaztarrak jakitera emon deuskunaren arabera. Eskalatzaileak bide bat

zabaldu dabe mendi honetan eta "aupa txabaleria" izena ipini deusie blog-aren arabera. Dana dala, beste bide bat hartzea gura eban Txikonek "beste bide gogorrago bat baina Karlosek kolpea hartu eban eta azkenean ez zan posible izan" azaldu deutso BEGITURI Txikonek.

Amaitukeran, Iñaki Ituarte eta Txikon be, salto bat egiten animau ziran 900 m. inguruko altueratik.



Gisasola eta Txikon Zumeltzan.

### Salto egiten ikasten

"Patrick Gisasola eta beste batzuk ezagutzen nebazan eta hareek animauta hasi nintzan saltoak egi-

ten. Mendian gauza desbardinak egiteko gogoia neukan. Ikasten nabil, beste gauza bat da eta zer sentitzen dan ikusi gura dot" dino lemoaztarrak.

Hori dala eta, urri lehenengoaren 6an Zumeltzan, paratriketik (paramotorraren antzeko ibilgailutik) Patrick Gisasolagaz salto egiteko ziran, honetan barriak diran Txirrita eskalatzaile mutrikuarra eta Alex Txikon. Baina haizeak ez eban aukerarik emon.

Patrick Gisasola Bakiokoa, saltatzailea da. "Beharra eta dana itxi eta urte biz Toledon egon nintzan parakaidismo zentro baten" azaldu deutso BEGITURI. Munduko

txapelketetan parte hartzean dau eta Espainian epaile izan da Benidorm-eko txapelketan.

### Bihurrigaz aizkoran

Kirolari lemoaztarra sano polifazetikoa da eta urri lehenengoaren 7an, Alex Txikon eta Ernesto Ezpeleta "Bihurri"k aizkora erakustaldia egin eben Arraten (Eibar).

"Aizkoran be banabil, gustura. Baina ez dot entrenetan txapelketetan emoitza onak aterateko beste. Menditik etorri eta txapelketak egin, larregi da".

"Buru belarri" mendian dabilela dino, nahiz eta jakin ez negu honetan Pakistanera joango dan ala ez.

Instalazio industrialak · Mantenimendu industrialak · Tresneria eta kontrola Merkataritza  
estlabezimenduen instalazioak · Etxebizitzaren erreformak edo berrikuntzak · Antena instalazioak  
Mantenimendua · TDT · Telekomunikazioak · Herriko argiak · Potentziadun koadroak



Arratian kultura bultzatzen

# indar

instalazio elektrikoak

Bildosola industria gunea, pab. E-3/4 · 48.142 Artea (Bizkaia)  
Tel.: 94 655 47 19 · Fax-a: 94 404 06 70 · E-posta: indarsl@indarsl.es

**RUGBY  
TABERNA**

•Egin zaitez bazkide!  
•09:30etik zabalik  
•Asteburetan pintxo bereziak

**ARRATIKO  
ESKORRAK**

arratiko.zekorak@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/

**arratiako  
instalazioak s.l.**

Berokuntza · Iturgintza · Gasa

Airratutako sistemak · Aire zurgintza zentralizatuak  
Suteak kontrolatzeko zerbiztuak eta mantentze lanak

Igorriko Industriak, Pab. 07  
Tel. Fax 94 673 62 76  
619 736 516  
48143 Igoite Bizkaia

## Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri ikastetxeak 2 urtetik 10ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI  
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoite

Ikastola Arratia HI  
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI  
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI  
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoite

Areartzako Herri Eskola  
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI  
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI  
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI  
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrazko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak



## ONDAREA

**Bediako herri ondarea  
ikertu dau Labayruk**

Bediako ondarea jasoteko ikerketea egin dau Labayruk, denporean zehar herrian izan dan bizimodua ezagutzeko asmoz. Holan "jakin dogu Ereñon bainuetxe bat egon zana eta Bediakolean hondartza bat" dinoe Bediako herri aldizkarian. Bediako Udalaren webgunean ipini dabe Herri Ondarearen Katalogoa eta Bediako Udalaren Facebookean ondare horren barri emon daben bediazarren grabazioak dagoz. BEGURI, Labayrun Herri Ondarea jasoten dauan lantaldeko Ainhoa Etxazarra Bediakoak emon deutzaz ikerketa honen zehaztasunak.

**Erredakzioa****Herri Ondarearen Katalogoa  
dabil egiten Labayru. Zer da  
hori?**

Lantalde bat herriz herri ibiltzen da herriko ondarea jasoten, bizimodu tradizionala jaso eta gordetzen. Holangoak herri askotan egin dira: Mungian, Uribe Kostako herrietan eta Bediarako be proposatu zan. Eta udalagaz ebatzi zan holango proiektua egitea.

**Zein izan da metodologia?**

Herri Ondarea lantaldekook ibili gara horretan eta grabazioak egin doguz. Jentea edadekoa eta ez hain edadekoari itaundu

deutsegu. Esan gura dot, badago jentea 80 urte ingurukoa, baina baita 60 urte ingurukoa be. Bizimodu tradizional horren erakusgarri izan daitekezanak danak. Inportantea zan auzune guztietako jentea egotea eta arlo desbardinatukoak: artzainak, plazaren inguruan bizi zan jentea...

**Zenbat denpora behar izan  
dozue behar hau egiteko?**

Grabetan orain dala urtebete gitxi gorabehera hasi ginan. Eta grabazioak egiten sei bat hilabete egon ginan. Grabau ahala sailkapen bat egin dogu: grabazioak entzun, transkribidu, fitzak bete, laburpen batzuk egin... hori izan da beharra, informazioa apur

**Ainhoa Etxazarra.**

bat sailkatuta eukiteko. Orain gabiz amaitzen. Korte batzuk egin dira, pasarterik interesgarrienak jasoz eta interneten dago, Herri Ondarearen Katalogoan ikusgarri. **Bediakoak egiten ibili diran besteak Bediakoak dira?**

Igone Etxebarria Bediakoak be ibili da grabazio batzuk egiten eta proiektua koordinetan. Besteak ez dira Arratiakoak.

**Zertarako jaso lehengo bizi-  
modua?**

Lan honek gauza asko aportau dauz. Bateri esker jakin dogu plazan dana arbola zala, ez egoala asfalto zati hau eta danon testigantza esker azkenez irudikatzen dozu zeure buruan zelangoa izan zan lehengo bizimodua herri honetan. Ez bakarrik fisikoa, ze gauza egiten ebezan umeak, zertan olgetan eben edo beharrak be bai, zelangoak ziran eta holan. Gauza asko urtetan dira herri guztietan, baina beste gauza asko Bediakoak bertakoak dira.

**Bediakoak bertakoa dan bi-****txikeriaren bat.**

Danak egin deuskue berba Artetxe baten gainean. Artetxe gizon aberatsa zan antza. Eta danak kontetan dabe gizon horrek itxi ebala dirua herriarentzat eta ospitalean ordainduta eukazala ohe bi, baten bat gaixotzen bazan erabilteko eta. Batzuek kontetan dabe haren diruagaz eta abadeagaz eskursinoak egiten zituela. Orain dala urte asko hil zan. Gure informanteak txikerrak ziran bizi zan Artetxe hori.

**Non bizi zan?**

Hor bersino diferenteak entzun doguz baina nik uste dot udaletxe pareko etxeetan bizi zala. Horko etxe guztiak bereak ziran. Errentan euki ebazan eta nik ez dakit baten baten bera ez ete zan bizi izan, horretariko baten.

**Hori dana jentearen eskura  
dago?**

Momentuz interneten dagoana ikusi daiteke. Proiektuan dago CD bat egitea eta liburu bat argitaratzea.

## IRAKURLE KLUBA

**Harkaitz  
Zubiri Bediako  
Irakurle Klubean****Erredakzioa**

*Etxekalte* liburua aurkeztuko dau urri bigarrenaren 3an Harkaitz Zubirik. Bediako Irakurle Kluba hasi da martxan udako geldialdiaren ostean. Azkenengo urteetako formatua mantendutun segiduko dau ikasturte barrian be; halan, idazle bat konbidauko dabe, hile birik baten, idatzi dauan azkeneko liburuaren gainean berba egiteko.

Ekitaldi ireki lez dago planteata, eta bertara hurreratuten diranak aukerea eukiko dabe aurkeztan dan liburuaren gaineko zalantzak argitzeko, komentarioak egiteko, edo, beste barik, idazleagaz bertatik bertara berba egiteko.

Hurrengo saioa urri bigarrenaren 3an izango da, eguaztena, arrastiko 19:00etan, Bediako liburutegian. Bertan, Harkaitz Zubiri idazlea izango da *Etxekalte* lanaren gainean berba egiteko. Zubirik (Donostia, 1977) argitaratutako hirugarren liburua da; aurretik *Zakur kale* narrazino-bildumea eta *Bertsolaritza. Tradizio modernoa* saiakerea idatzi ditu.

Donostialdeko enpresa bateko langileen inguruan garatzen da *Etxekalte* eleberria. Lankideen arteko hartuemonak eta trainoak, sindikatuak, amianto edota krisialdia dira liburu gaitariko batzuk.

ikasi eta landu **euskara bizia**

**Arratiako AEK**  
Maila eta ordutegi guztiak  
Autoikaskuntza

Agirre Lehendakaria 4, Igorre. 94 631 56 57

**aek** | Garena ikasteko para entendemos pour se comprendre

eman izena  
www.aek.org  
902 362 294







## LEHIAKETEAK

# "Udabarriko bedar freskoaren ikutua" dauka Ordiziako gaztai irabazleak

Jon Etxebarria zeanuriztarrek irabazi eban hilaren 5ean aurtengo Ordiziako gaztai txapelketea.

### Erredakzinoa

Txapelketa hau Idiazabal gaztaiaren txapelketarik handiena da. Gaztai sarituaren erdia Catalana Occidente aseguru etxeak erosi eban 7.400 euro pagauta eta diru hori Ordiziako zaharretxearentzat izango da. Etxebarriak garaikurra, 1.500 euro eta gaztaietan ipinteko "Ordiziako txapelduna" ipinten dauan 5.000 etiketa jaso ditu sarizat.

Jon Etxebarria eta Puy Arrieta dira gaztai irabazlearen gaztaigina, baina saria jasoteko egunean ezin izan ziran Ordizian egon, alabea jaiobaria zalako. Ordiziakoa sariarik inportanteena izan da, baina gaztaitegiaren sarreraren apalategi bat dago sariz beteta. "Batzuek nik lortutakoak dira, beste batzuek Puyk eta beste batzuk biok" dino Etxebarriak. Apaletan ikusi daikeguz orain lau urte Etxebarriak lortutako Bizkaiko Txapela

edo 2009an irabazitako Munduko Txapelketako brontzeko domina, Puyren Arabako garaikurra eta biona dan aurtengo Azpeitiako bigarren saria. Ordiziako garaikur handia, sartu eta parean, oherzko leku baten dago.

### Udabarriko gaztaia

Gaztai klase bi egiten ditue Ipiñaburuko gaztaitegian, zuriak eta ketuak. Bizkaian "gehien saltzean dana gaztai zuria da" baina Gipuzkoan eta Araban, ke apur bat emonda, gaztai ketuak, gurago ditue eta horreek aurkezten ditu lehiaketetara Etxebarriak. "Irabazleak udabarriko gaztai bat izan da, maiatzaren 1ekoa. Lehiaketetara aprila eta maiatzeko gaztaiak erosten doguz. Uste dogu, udabarriko berdearen zaporea daukiela, bedar freskoarena. Eta gaztai ketua da, ke apur bat emon ezkerro beste toke bat hartzean dau gaztaiak"

dino Ipiñaburuko gaztaigina.

Laurehun ardi inguru ditue Ipiñaburun eta hareen bazka ei da gaztai onenaren sekretua. "Naturan pentzu naturala emoten deutsegu ardiai, alpapa-eta, eta gero udabarrian kanpora, larrea. Saiatzen gara kanpoan asko erabilten ardiak. Nik uste dot kanpoko larreak emoten deusala esneari bizitasuna. Larreak hemen Ipiñaburun daukaguz. Udan Gorbeiera erosten doguz ardiok, oporretan" dino brometan.

### Urtean sei mila kilo gaztai

Laurehun ardiren esneagaz, sei mila, sei mila eta bostehun kilo inguru gaztai egiten dabe Jon Etxebarriak eta Puy Arrietak. Behar gogorra eta ordu askotakoa "hamasei ordu be egun askotan egiten doguz. Honetan andrea eta biok egiten dogu behar, baina familiaren laguntasuna be ba-

daukagu: anaia, gurasoak... azkenean familia osoa inpliketan da".

Sei mila kilo horreek batez be etxetik saltzean dabez, baina baita Arratia, Araia eta Gasteizko denda batzuetan be. "Ferieta be joaten gara, Zeanuriko San Isidroko azokara, Gernikara... Izan be, ondo sal-

tzean da ferietan eta merezidu dau".

Krisia be igarten dala ardien munduan dino, pentzuak gora egin dauala baina honetatik biziten jarraitu gura dauala. Horretarako produkturik onena egiten jarraituko dau, ardiak ondo zainduta, gure lurretako bedarrik freskoena emonez.



Jon Etxebarria.

## IKASTAROKAK

# Udal ikastaro aukera zabala Arratian

### Erredakzinoa

Ubiden izan ezik, beste herrietan udalak antolatutako ikastaroak herriarrai aisialdirako proposamen desbardinak eskeintzen deutseez. Lemoa, Igorre, Bedia eta Areatzan, barbarako, gorputza jagoteko eta arteetan trebatzeko aukera egongo da 2012-2013 ikasturtean be. Ikastaro gehienak urri bigarrenean hasiko dira, eta izena emoteko epea zabalik dago. BEGITUKO zenbaki hau zarratukeran Arantzazu, Dima, Zeanuri eta Zeberioko ikastaroak zehaztu barik egozan.

### Artea

Klasikoen aldeko apostua egin dabe Artean, artea eta gimnasia-ren aldekoa, hain zuzen be. Izan be, Eskulanak, Margolaritza, Arte Aplikatuak, Aerobic, 3. adinekoen-

tzako gimnasia, Yoga eta Pilates dira udalak antolatutako ikastaroak.

### Areatza

Areatzan nobedade moduan biodantza ikastaroa dago. "Igaz ikastaro labur bat egin zan, eta parte hartzaileak oso gustora egon ziranez, errepikatzea eskatu eben. Beraz aurten luzeagoa egingo da" azaldu deutso BEGITUKO Sara Gutierrez zinegotziak.

Biodantza, Arte aplikatuak, Yoga, 3. adinentzakoentzat gimnasia, Aerobic eta Pandero ikastaroak egin ahal izango dira Areatzan.

### Bedia

Zazpi ikastaro eskeintzen ditu Bediako Udalak. Gainera, liburutegiak Irakurle Kluba be antolatzen dau. Nagusiai literatura lantzeako aukera eskeiniz. Ikastaroak honeek dira: Egurra lantzen, Yoga, Pilates, Informatika, Memoria tailerra, Dan-

tza eta Aerobic.

### Igorre

Igorren euskerearen aldeko apostua egin dabe udalaren ikastaro eskeintzen. Izan be, zazpi ikastarotik, sei euskeraz izango dira. Tai chi, Jantza afrikarrak, Literatura tailerra, Akrobazia aereoak, Gazteentzako laburmetraje ikastaroa, Desarrollo del proceso creativo a traves de la plastica IV eta Zeramika dira udalak eskeintzen dituan ikastaroak. Honeetatik aparte beste hainbat ikastaro eskeintzen dira kiroldegian.

### Lemoa

Lemoak eskeintzen dau aukerarik zabalena, hamar ikastaro eskeiniz. Honeek dira: Oinarizko sukaldaritza, Sukaldaritza sakontzen, Argazkigintza, Photoshop CS 5, La-

burmetraia, Informatika, "Encaje de bolillos", Zoru pelbikoa indartzea, Eskulanak eta Euskalduntzea eta

Alfabetatzea.

Lemoan be kiroldegian hainbat ikastaro eskeiniko dira.



Saio Larreak emongo dau zeramika ikastaroa Igorren.

**expert** **ARRATIA**

E posta: expertarratia@cordevi.com  
Lehendakari Agirre, 15 Tel. 94 673 60 55  
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

Tel. 94 631 60 55 • e-mail: info@aramotz.com

**ARA MOTZ**

Landa- eta Jaiotza-erakundeak

Puerto Ugarana 2 et. - 48144 Dima - Bizkaia - www.aramotz.com

**ellauri**  
HOTELA

Naturazko ospitalea

Landa Turismoa  
Erpinen Zerbitzuak

Aitzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

**OPEL**

**Ibaigane, S. Coop. Ltda.**

Esturola, 15  
48330 LEMOA (Bizkaia)  
Telf: 631 33 30 • 631 31 31  
Fax: 631 36 15



## AGENDEA

**URRI LEHENENGOAK 18  
IGORRE**

19:30ean aurrekontuetako batzarra San Juan auzoko txokoan.

**URRI LEHENENGOAK 19  
IGORRE**

19:30ean aurrekontuetako batzarra, erdigunea eta Olabari, Kultur Etxean.

**LEMOA**

Haurreskolan izena emoteko epea zarratuten da.

**URRI LEHENENGOAK 20  
BEDIA**

Jubiladuen eguna. Biarritzeko Kasinora urtekerea. 09:00etan urtekerea udaletxetik. 11:00etan, bisita gidatua Biarritzeko kasino ikusteko. 14:30ean, bazkaria Oartzunen Tolare jatetxean. 16:30ean, kartajoko txapelketea. 18:30ean, buelta.

**IGORRE**

19:30ean aurrekontuetako batzarra San Kristobal auzoko txokoan.

**URRI LEHENENGOAK 22  
BEDIA**

09:00etan, Bedia-Zeanuri Arratiako Ibaierzetatik III. Martxa.

**IGORRE**

Inbiu Euskera Eguna. Lasarte plazan. 11:00etan, trikitilariak herrian zehar eta umeentzako jolasak. 12:00etan, Mihiluze txapelketearen finala. 14:30ean, herri bazkaria. 17:00etan, "Euskeraz bizi gura dot" argazkia. 17:30ean, Institutukoak grafitia, kontzertua Irtenbide taldeagaz eta ostean erromeria Dangeliske taldeagaz. 20:00etan, txokolata Beinke-k emonda.

**ZEANURI**

Urriben San Migel jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**URRI LEHENENGOAK 23  
BEDIA**

Auto bako eguna. 10:00etan, Bedian

zehar bizikletan. 11:00etan, truke merkadua. 12:00etan, parte hartzaileen arteko bizikleta zozketea.

**IGORRE**

17:30ean umeentzako zinea *Madagascar 3*. 19:30ean zinea, *Moonrise Kingdom* Lasarte Aretoan.

**LEMOA**

Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako urtekerea. Hernialde-Errezil. Herniozabal (1.010 m) Hernio (1075 m.).

**URRI LEHENENGOAK 24  
IGORRE**

19:30ean aurrekontuetako batzarra, Basauntz eta Gezala, udaletxean.

**URRI LEHENENGOAK 27  
IGORRE**

19:30ean aurrekontuetako batzarra, Urkuzu eta Garakoi, Urkuzuko txokoan.

**BEDIA**

17:00etan, tailerra: papela egin. Liburutegian.

**URRI LEHENENGOAK 28  
LEMOA**

Ganzabal mendi taldeak antolatuta, orientazio tailerra. Gorbeia.

**IGORRE**

19:30ean, hileko azken barikua, Herrirak antolatuta preso eta errepresaliatuen aldeko konzentrazioa.

**URRI LEHENENGOAK 29  
ARTEA**

San Migel ermitan mezea eta ostean barauskarria.

**IGORRE**

22:00etan, zinea *Abraham Lincoln: cazador de vampiros*. Lasarte Aretoan.

**LEMOA**

Ganzabal mendi taldeak antolatuta, orientazio tailerra. Gorbeia.

**URRI LEHENENGOAK 30  
IGORRE**

17:30ean, umeentzako zinea *Ice Age 4*.

19:30ean, zinea *Abraham Lincoln: cazador de vampiros*. Lasarte Aretoan.

**LEMOA**

Ganzabal mendi taldeak antolatuta, Arratiako mendiak eta herriak 7. zeharkaldia: Artea-Zeberio.

19:00etan, Argia emonaldia Elizondoko Kultur Gunean.

**ZEBERIO**

Austarri mendi taldeak antolatuta "Zeberio ezautuz" mendi urtekerea.

**URRI BIGARRENAK 2  
IGORRE**

18:30ean Lasarte Aretoan parte-hartze foroetako batzarren balantzaren aurkezpena.

**Areto ilunaren goxora barrero**

Udan eten bat egin ostean, kursoagaz batera hasi da zine denporaldia Igorreko Kultur Etxean. Urri lehenengoaren 15ean, hasi ziran barrero emonaldiak, 22:00etan, *Qué esperar cuando estas esperando* pelikuleagaz. Hurrengo egunean, domekan, umeak *Brave* filma ikusteko aukerea izan eben arrastiko bost t'erdietan eta zapatu iluntzeko filma barrero proiektatu zan domekan 19:30ean.

Hilaren 23an *Moonrise kingdom* eta *Madagascar 3* pantailaratuko dabez eta 29-30eko astegoienean, *Abraham Lincoln: cazador de vampiros* eta *Ice Age 4*.

## IRAGARKI LABURRAK

**SALDU  
SALGAI**

Altzarien eskeintza berezia, prezio sano bajuak likidazioagaitik. Zatoz ikustera Elexalde 10 behea (Igorre).

**DANERIK  
ETXEA ALOKATU GURA DOGU**

Alokatzan dan baserri edo terrenoa daukan etxe baten bila gabizen bikotea gara. Telefonoa (Zuriñe: 656 739 952).

**BASERRIA ALOKATU GURA  
DOGU**

Alokairuan dagoan baserri edo etxea gura dogun bikote bi gara. 685 707 176 Eider.

**LOKALA ALOKATZEN DOT**

Lonja edo lokal bat alokatzen dot Diman. Deitu telefono honetara 616 813 747.

**GARBIKETAK**

Etxeak, portaleak, bulegoak... garbitan dodaz. Etxeko beharrak egin eta adinekoak be zaintzean dodaz. Telefonoa 666 238 081 (Cristina).

**ETXEKO BEHARRAK ETA  
ZAINZAK**

Etxeko beharrak egin, eta umeak eta edadeko jentea jagoten dot. Kotxeduna. Mari Karmen 647 067 235.

**UMEAK JAGOTEN DODAZ**

Goizeko ordutegian umeak jagoteko prest nago. Telefonoa 600 759 434 (Naiara).

**LEKU BILA**

Txakurrak eukiteko leku txiki baten bila nabil (Iker 680 518 473).

**UMEEN ZAINZAK**

Umeak esperientzia daukan neska bat zuen seme-alabak jagoteko prest dago. kotxeduna (Pili 686 728 843).

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.**

**Begitu-lagunen txokoa****Zenbaki honetako saridunak:**


**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Abraham Lincoln: cazador de vampiros* filmarako.

Miren Idigoras (Zeanuri)  
Olaia Gurtubai (Dima)



**2** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Ice Age 4* filmarako.

Ziortza Lekue (Igorre)  
Garikoitz Etxebarria (Igorre)




**3** Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 10 urte eta ehundaka lagun.



## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Ekintza. 2.- Sufrea. Galga.  
3.- Umeen berbetan, mosua.  
Tinbrearen soinuaren onomatopeia.  
4.- Geriza. Letra bat. 5.- Begiak itxita.  
Boroa. Birritan, baratzeko landara  
lekaduna. 6.- Uranioa. Gizonezkoen  
izena. 7.- Egur. Nora atzizkia.  
8.- Kantsau. Letra bat. 9.- Elorria.

### GOITIK BEHERA

1.- Gure arpegia ikusten dogu bertan.  
Sodioa. 2.- Letra bat. Inesiboan,  
behihoan, berehala. Galdetzailea.  
3.- India. Azken letrea. Zedarria.  
4.- Konponduezinean. 5.- Trebe. Letra  
bat. Ospa, alde. 6.- Oreka. Berreketaren  
ikurraren izena. Letra bat. 7.- Jainkoa,  
hizkuntza semitikoetan. Korrika.



Topau zazpi insekturen izenak.

A	R	A	S	T	O	A	Z	U	A
R	I	N	O	Z	E	R	A	H	I
O	K	T	D	A	K	R	U	A	B
P	I	A	A	J	R	O	L	K	U
E	Z	T	I	A	S	U	A	E	A
U	T	E	D	I	A	G	I	L	A
S	A	L	A	M	I	A	I	X	T
A	E	E	R	I	R	K	O	K	A
B	U	M	A	E	R	O	H	I	N
F	A	I	R	I	U	Z	A	D	O
O	T	X	K	A	N	L	E	U	Z
K	A	T	U	B	I	L	I	K	A
A	R	T	O	A	I	D	R	A	P
R	M	E	Z	O	L	A	N	E	U
I	Z	T	U	L	K	E	A	M	A

# AKIMIKO

Iman Olatu



Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea

Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115



[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

Gugaz harremanetan ipinteko  
**94 631 73 14 eta  
649 979 112**

[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)



**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karnela eskolaraz zein erdioraz

Agine Lehendakaria 11 48140 Igone (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 83  
E-posta: urabiz@euskainet.net

NAIARA Hertz Klinika

Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igone  
94 631 52 26

*Los Chopos*  
neurriera egindako armairuak

Anda, Los Chopos, 35 (Nagut) Tel.: 94 430 40 94

**Esposizinoa eta  
fabrikea Lemoan**

Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
[www.armariosloschopos.com](http://www.armariosloschopos.com)

**begitu**  
amata ubide zerbeto

\* KIRRU \* ILEAPANDEGIA  
**SOLARIUM**

Roberto eta Rosana

Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
# 94 631 92 00



E. Agirre, 7.  
48120 Igurre (Bizkaia) Tfnoa: 94 622 64 78

**INCOESA**

Tel. 94 631 32 75  
Faxa. 94 631 37 66  
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia



**Bar Restaurante  
Montero**

**Eguneko menua**  
euskal sukaldaritza,  
sukaldaritza bolibiarra  
eta brasildarra

Zelaia 19 - Arantzazu - 619 903.653



## NAIA ALZOLA

**"Niri kirolak zoriontsu izaten laguntzen nau"**

Oraino honetan Naia Alzola durangarragaz euki dau zitea BEGITUK. Han agertu jaku, aldatzean behera eta bizikletea eskuan. Atoan igari jaku nortasun handiko andrea dala. Egundiman bizi dan kirolari honek, danetariko kirolean konpetidu dauala esan geinke: iraupen eskia, txirindularitza, ziklo-krosa, triatloia... Heziketa fisikoko irakaslea be bada. Txikitatik jasotako kirolakanako afizinoa ofizio euki dau aldikada baten, amatasunak paroi txikitxo bat eskatu eutsan arte.

Irati Urien

izan neban.

**Noiz hasi zinan kirolean?**

Txiki txikitarik. Gure aita oso zalea zan. Familian beti gustau izan jaku kirola. Serio konpetiduten, 12 urtegeaz hasi nintzan iraupen eskia egiten.

**Zenbat urte emon zenuan horretan?**

Orain dala gitxira arte. 18 urtegeaz momentu baten itxi egin neban baina gero barrero be bueltau nintzan elitera, eta Espainiako lasterketa batzuk egiten jarraitu neban.

**Irabazi zenuan eski txapelketarik?**

Espainiako txapelketa bat. Gaztetan eskiatzailea izateko ilusino neukan baina 17-18 urtegeaz ilusino hori hilten joan zan apurka-apurka. Ez egoan nesken ekiporik eta ez egoan segiduteko planik, orduan itxi egin behar

**Horren ostean, lehiaketaren munduan, zertan mobiduzara?**

Gero, mendiko bizikletan hasi nintzan. Eta orduan, neguko triatloia asmatu zan: iraupen eskia, korrika eta bizikletea. Sano gustau jatan. Espainiako txapelketetara joatetik aparte, selekzinoagaz kanpora be joaten nintzan, munduko txapelketetara eta Europako txapelketetara.

**Eta konpetiduten jarraitzen dozu.**

30 urtegeaz pentsau egin behar dozu zer egin. Ama izan gura neban...

**Aldaketa handia suposatu deustu ama izateak?**

Bai. Umeak, beharra... azkenean kirola *hobbie* bihurtzen da.

**Baina zure kasuan kirola ez da *hobbie* bat bakarrik.**

Ez, *hobbie* moduan daukat, bai-

na niri konpetizino asko gustetan jata. Badakit orain lehengo mailan ezin nazana egon, entrenamentu ordu gitxiago sartzean dodaz eta, baina konpetiduten jarraituten dot.

**Eragozpen edo oztoporik bidean?**

Bai. Gizarte matxista baten bizi gara, eta bardintasuna lortzeako oraindino bide luzea dago egiteko. Kirolean, argi dago kontrako gauza asko izan dodazala andrazkoa izatearren. Ziklo-krosean, adibidez, sariak ez dira bardinak. Gizonentzat 120 euro badira, andraz-koentzat 60. Inoz pasau jaku be dutxak gizonentzako bakarrik dagozala entzutea. Azkenean, gauza horreek guztiorreek neskek gelditu arazotea lortuten dabe.

**Badago aukerarik nesken-tzat?**

Ez, kirol batzuetan ez. Gogoan daukat lagun batzuk zesta punta egiten ibili zirala baten eta neu be izena emoteko gogoagaz joan nintzala baina ez eusten itxi.

**Federazinoarik ez, txapelketarik ez...**

Hori da, ezer be ez. Baten esan eusten "gizonok ezin dogu gimnasia ritmikoa egin" baina guk ezin doguz hamaikatxo kirol egin, aldea izugarria da.

**Gaztetan, nerabezaroan adibidez, badago momentu bat neskek orokorrean kirola ixten dabena. Askok aukera personala dala esaten dabe baina zeintzuk dira zure us-***Kirolak konpetizino**emon deusta eta**konpetizino eskola**handia izan da niretzat***tez arrazoiak?**

Argi dago kirola gizartearen islada dala. Ez umetan bakarrik, andren kasuan be zenbat urtetan dira? Gimnasio barruan egoten dira, spinning egiten dabe, aerobic, bidegorritik oinez urtetan dira eta kito. Zegaitik ez bizikletan adibidez?

**Zuretzat zer da kirola?**

Bizitza erdi. Niri kirolak zoriontsu izaten laguntzen nau. Kirola egin barik egon naz denpora luze baten eta oso gogorra egin jata. Momentu honetan dana da niretzat: nire buruagaz ondo egoteko beharrezkoa jata eta gorputza ondo sentitzeko be bai. Gorputza ez bada ondo sentitzen burua ez da ondo egongo. Bizitzan ikasi behar diran gauza pilo bat ikasten dira konpetiduten: Galtzean, zeure burua neurtzen, besteakaz muturreko egoeretan hartu-emonak izaten...

**Heziketa fisikoko irakaslea zara. Ze ekarpen egiten dau hezkuntzan kirolak?**

Nik neuk astean ordu bi ez, egunero jarriko neuke eskolan

obligazino moduan kirol apur bat egitea.

**Mutilak eredu asko daukiez kirol munduan. Neskek ostera ez. Zer egin leiteke ereduak sortzeako?**

Bai egia da. Euskal Herrian aspaldion Edurne Pasaban eta Virginia Berasategi dagoz eredu moduan, baina ez daukie mutilen ereduak adinako fama. Nik pentsetan dot adibidez, Arratia mailan, rugbiko nesken taldea bultzatu behar dala, neskatok hara eroan edo rugbikoak eurak eskoletara ekarri. Holako ekintzak, ikastaroak... ereduak hurbildu eta hor dagozala erakutsi.

**Honen gainean mahai-ingurua egingo da datorren hilako 14an, Zeanuriko Kultur Etxean. Zer iruditzen jatzu?**

Garrantzia handikoa. Gurasoak, aitite-amamak... danak egin behar dabe berba eta Arratian bertan neska kirolariak dagozala ikusi. Apur bat ostondu egiten gara eta hor gagozala erakustea inportantea da.

**arratiako merkatarien elkarte**

[www.arratia-merkatariaK.com](http://www.arratia-merkatariaK.com)

**AUKERAN AZOKA****KULTUR ETXEAN (IGORRE)****URRIAK 6****10:00 - 20:00****URRIAK 7****10:00 - 14:00****IGORREN EROSI**